

AURKEZPENA

Ekonomiako klaseak hasi zirenetik, gizartean dauden arazoak ikertzen aritu gara. Zer gaietan interesatu garen oraintxe azalduko dizueguna da, gure inguruan nabarmenki isladatzen delako.

Gaur egungo gazteen artean teknologiarekin erlazionatutako arazo soziala dago. Baina zer egin dezakegu hori saihesteko? Zenbait astetan herriko gazteak beraien artean duten jokaera aztertzen ibili ondoren, ondorio hauetara iritsi gara: menpekotasun handia dugu teknologiarekin eta ez gara gai aparatu hauek erabili gabe egoteko. Horregatik, ekonomiako klasetan arazo honi konponbidea emateko pentsatzen ibili gara. Orduan, gogora etorri zitzaigun txikitan parte hartzen genuen lehiaketa bat, bertan, gure arteko harremanak sendotzeaz gain arratsalde atsegingarri bat edukitzen genuen. Hori dela eta, ekintza hau berrartu nahi dugu eta horretarako proiektu bat aurrera eramatea pentsatzen dugu. Honen helburua gazteak beraien artean daudenean teknologiarik gabe egotea da. Baina, hori ezin dugunez guztiz kontrolatu, gure esku dagoena egingo dugu, hala gure lehiaketan parte hartzen duten unean gazteak teknologia ez erabiltzea da helburua, eta horrela ohartuko dira arratsalde atsegingarriak pasa ditzaketela beraien artean inolako teknologiarik erabili gabe.

Gu, Urretxu-Zumarraga Ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak gara, Carmen Igartua, Garazi Aranburu eta Saioa Larrarte eta "Ilustratzaileak" taldea osatzen dugu. Haurrak teknologia erabili gabe entretenitzeko ekintzak prestatuko ditugun gazte ekintzaileak gara zuzenago definituta.

Hau guztia esanda ekin diezaiozun gogor gure proiektuko atalak azaltzeari!

